

ELKARRIZKETA  
SOZIALERAKO MAHAIA  
MESA DE  
DIÁLOGO SOCIAL

## **ERABAKIA, EUSKADIKO ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIAN EUSKADIKO LAN-MERKATUKO MIGRAZIOEI BURUZKO LANTALDE BAT ERATZEKOA**

Vitoria-Gasteizen, 2026ko apirilaren 14an, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaia bildu da, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeen parte-hartzearekin, eta honako hau


### **ADIERAZTEN DUTE**

FUTURELAN Euskadiko enplegu-prospektibaren eta okupazio-joeren Behatokiaren arabera, 2024tik 2036ra bitartean 675.013 enplegu-aukera sortuko dira garapen ekonomikorako aurreikuspenengatik, eta horietatik 562.533 gaur egun EAEko lan-merkatuan lanean diharduten pertsonen erretiroagatiko ordezkapenekoak izango dira.

Eskaintzaren eta eskariaren arteko etorkizuneko desorekek —prospektiba-azterlanetan eta enplegu-eskariaren eta -eskaintzaren proiektioetan ere aurreikusten dira— politika publikoen sorta zabala behar dute jarduera-tasak handitzeko, batez ere emakumeen eta 55 urtetik gorako pertsonen kasuan (oro har, jarduera-tasa txikiagoak baitituzte), langileen enplegarritasuna hobetzeko kualifikazioaren eta prestakuntzaren bidez, eta betiere kontuan hartuta helburua beti izan behar dela kalitatezko enplegua sortzea.

Gure lan-merkatua etorkizuneko erronketara (demografikoa, digitala eta energetikoa) egokitzen hasteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legea onartu zen. Lege horrek enplegu-politika berri baten eta Lanbideren erabateko eraldaketaren zutarrak jarri zituen, etorkizuneko erronkei aurre egiteko jarduketa eta programa berriak abian jartze aldera.

Migrazioa, zalantzarik gabe, fenomeno globala da, eta berezkoa du giza espezieak. Douglas Massey soziologo eta demografoaren hitzetan, gizakia espezie migratzailea da, eta migrazioa giza espeziearen funtsezko ezaugarritzat eta prozesu estrategiko eta sozialki egituratutzat ezartzen du. Nolanahi ere, gizakiaren integrazioa dugu, egungo migrazioen ezaugarri propioetatik abiatuta, aurrez aurre dugun beste erronketako bat, eta, gizarte demokratikoa garen aldetik, herritartasunaren kontzeptua izan behar du zeharkako ardatz; alegia, integrazioaren oinarrian jarri behar da eraiki dugun eskubideen eta betebeharren multzoa, zeina giza eskubideekiko errespetu zorrotzetik abiatzen baita.



Testuinguru horretan, lanerako eskubidea migratzaileen integrazioarako oinarrizko elementua da, eta, horretarako, beharrezkoa da ezagutza-mekanismo espezifikoak antolatzea, enpresen eta migratzaileen premiei eta gaitasunei aurrea hartu ahal izateko.

Ekainaren 17ko 511/2025 Errege-dekretua indarrean jarrita (zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzerritarren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenei buruzko Estatuko lan-legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak), beste aurrerapauso bat eman da autogobernuan, eta erantzukizun zuzena esleitzen zaie EAEko erakundeei lan-migrazioaren antolaketan.

Eskumen berri horrek ezagutza eta esperientzia eman behar dizkio Eusko Jaurlaritzari, aurreko paragrafoan adierazitako premiak kudeatu ahal izan ditzan, pertsoneri «migrazio-prozesu seguru, ordenatu eta erregularrak» bermatzeko, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 2018ko abenduaren 19ko Ebazpenaren bidez adierazi zuen bezala (A/RES/73/195). Baina, era berean, dagoeneko hemen errotuta dauden migratzaileak laneratzea ahalbidetuko duten bideak ezarri behar dira, eta lan-bitartekaritza eraginkor baterako bide emango duten enplegu-politika aktiboak ahalbidetu.

Migrazio-alderdi horren kudeaketa gizarte-eragileekin kontsultak egiteko eta adosteko esparru instituzional, iraunkor eta espezifiko batean oinarritu behar da, eta, beraz, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaian.

## ERABAKITZEN DUTE


### **Lehenengoa.- Eratzea.**

Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren esparruan, EAEko lan-merkatuko migrazioei buruzko lantalde bat eratzea, gizarte-eragileak partaide direla, bide iraunkorra izan dadin enplegu-politika aktiboen eta lan-migrazioa kudeatzeko politiken arteko lankidetzaz eta koordinazioarako.

### **Bigarrena.-**

---

*Erabakia, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren esparruan Euskadiko lan-merkatuko migrazioei buruz lantalde bat eratzekoa*



### Helburuak.

Euskadiko lan-merkatuko migrazioei buruzko lantaldearen helburuak, besteak beste, hauek izango dira: lan-merkatua aztertzea migrazioari dagokionez, enplegu-politika aktiboen eta lan-migrazioen kudeaketaren arteko plangintza eta koordinazioa hobetuko duten politika publikoak diseinatzea, enpresen eta pertsonen premiak identifikatzea lan-integrazioa errazteko, eta, oro har, migrazio-bide seguruak, ordenatuak eta erregularrak ezartzen laguntzea, migratzaileen eskubideak bermatzeko eta lan-merkatuan sartzea errazteko.

Nolanahi ere, taldeak etengabe egingo du lan-migrazioak Euskadiko lan-merkatuan duen eraginaren jarraipena, eta ondorioak edo proposamenak aurkeztuko dizkio Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiari.

### Hirugarrena.– Funtzionamendua.

Lantaldea adostasunez erabakitzen den maiztasunarekin bilduko da, eta adituen edo arduradun teknikoen parte-hartzea eskatu ahal izango du, aztertu beharreko gaien nolakotasunak hala gomendatzen duenean.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko kide diren alderdiek erabaki hau sinatzen dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

### Eusko Jaurlaritzaren izenean,

Mikel Torres Lorenzo


Begoña Pedrosa Lobato

Mikel Jauregui Letemendia

Nerea Melgosa Vega

---

*Erabakia, Euskadiko Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren esparruan Euskadiko lan-merkatuko migrazioei buruz lantalde bat eratzekoa*



ELKARRIZKETA  
SOZIALERAKO MAHAIA  
MESA DE  
DIÁLOGO SOCIAL

Confebasken izenean,

x

Tamara Yagüe Martínez

Sindikatuaren izenean,

x   
CCOO

UGT